

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU DEKRETUA, zeinaren bidez onartzen baitira, 2025eko ekitaldiaren kontura, Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanletik beherako zuzenbidezko biztanleria duten udalerriei eta mankomunitateei dirulaguntzak emateko oinarriak eta deialdia, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko jardueretarako.

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak 2025erako helburuen artean jasoa du Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietan emakumeen eta gizonen berdintasunerako proiektuak sustatzea. Horretarako, udalek zeharkakotasunaren balioak eta mekanismoak jaso behar dituzte beren jardueren plangintzan eta garapenean, eta arreta berezia jarri behar dute honako alderdi hauetan: emakumeen aurkako indarkeria, erantzukidetasuna eta kontziliazioa, eta emakumeen ahalduntzea bizitzaren eremu guztietan.

Erakundeen politikek oso eginkizun garrantzitsua dute bizi-baldintzak egituratzen. Beraz, oinarritzko tresnak dira, bai eredu jakin batzuk finkatzeko, bai eredu diskriminatzaileak, bidegabeak edo ez-eraginkorrak aldatzeko.

Berdintasuna lortuko bada, euskal administrazio osoak parte hartu beharko du, bereziki toki administrazioak, herritarren beharrian, helburu eta kezketatik hurbilen dagoen erakundea baita. Horri gagozkiola, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.1 artikulua dio udalak eskumena duela auzokide komunitateen beharrianak eta beren helburuak betetzen laguntzen duen zeinahi jardura sustatzeko eta behar diren zerbitzu publiko guztiak eskaintzeko; halaber, emakumeen sustapena udal ekintzaren eginkizuntzat jotzen du.

Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza bultzada handia ematen ari zaio toki-administrazioko entitateekin egiten den lanari. Horren adierazle da Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde Sarea, Bizkaiko udalekin koordinaturik elkarlanean aritzeko espazioa.

DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de las subvenciones a municipios con población de derecho inferior a 7.000 habitantes y mancomunidades del Territorio Histórico de Bizkaia, para actuaciones de fomento de la igualdad de mujeres y hombres con cargo al ejercicio 2025.

La Dirección General de Igualdad, del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad incluye entre sus objetivos para el año 2025 el fomento de proyectos dirigidos a la igualdad de mujeres y hombres en los municipios del Territorio Histórico de Bizkaia que recojan en la planificación y desarrollo de sus actividades los valores y mecanismos de la transversalidad y que fijen especial atención a la violencia contra las mujeres, la corresponsabilidad y conciliación y el empoderamiento de las mujeres en todos los ámbitos de la vida.

Las políticas de las instituciones juegan un papel muy importante en la configuración de las condiciones de vida. Son por ello un instrumento fundamental, bien para la consolidación de determinados modelos, o bien para la transformación de aquellos que resultan discriminatorios, injustos o ineficaces.

La consecución de la igualdad requiere de la participación de toda la administración vasca, con especial relevancia de la local, como instancia más cercana a las necesidades, intereses e inquietudes de la ciudadanía. A este respecto, la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, en su artículo 25.1 expresa la competencia municipal para promover toda clase de actividades y prestar cuantos servicios públicos contribuyan a satisfacer las necesidades y aspiraciones de la comunidad vecinal, considerando la promoción de las mujeres como uno de los ámbitos de la acción.

Desde la Dirección de Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia se está dando un importante impulso al trabajo con las entidades de la administración local. Ejemplo de ello es la creación de la Red Territorial para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Bizkaia como espacio de trabajo coordinado y conjunto con los ayuntamientos de Bizkaia.



Horri dagokionez, udalerri bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta, beraz, berdintasun-politika desberdinak garatzen dira tokian-tokian, kasuan kasuko aldagaien arabera. Udalerrien tamainak, esate baterako, askotan baldintzatzen du udalerriok politika publikoak, oro har, eta berdintasun-politikak, bereziki, bultzatzeko duten gaitasuna. Gerta liteke udalerri txikiek, beren ezaugarriak direla eta, laguntza handiagoa behar izatea emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko proiektuak garatzeko. Hori dela eta, historikoki, Bizkaiko Foru Aldundiak dirulaguntzei buruzko dekretuak onartu ditu, tamaina txikiagoko udalentzat emakumeen eta gizonen berdintasunerako proiektuak egiteko. Azken deialdietan 7.000 biztanletik beherakoentzat ezarri da neurri hori.

Bestalde, politika publikoek beren ingurunean duten irismena eta eragina handiagoa denez, beharrezkoa da ere Bizkaiko Lurralde Historikoko mankomunitateei laguntza ekonomikoa ematea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika publikoen garapena intentsitate handiagoz sustatzeko eta lurralde-oreka handiagoa lortzeko.

Bestalde, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistari gabeko Bizitzetarako Legearen testu bateginaren, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartuta (aurrerantzean, berdintasunerako Legearen testu bategina), 6. artikulua h) apartatuan xedatutakoaren arabera, foru administrazioen eginkizunetako bat da sustapen-neurriak ezartzea, udalek eta gainerako toki-entitateek bitarteko materialak, ekonomikoak eta giza baliabideak izan ditzaten, emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesteko diseinatutako programak eta jarduerak garatu ahal izateko.

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 2018ko otsailaren 20ko 4/2018 Foru Araua bere 3. artikuluan dioenez, berdintasunerako Legearen testu bateginaren 3. artikuluan jasotakoak dira Bizkaiko Lurralde Historikoko foru sektore publikoaren jarduna arautu eta orientatu behar duten printzipio orokorrak.

Halaber, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren eginkizunen artean, honako hau jasotzen du 8 j) artikuluan:

En este sentido, las diferentes características de los municipios hacen que el desarrollo de las políticas de igualdad sea diferente en unos u otros, atendiendo a diferentes variables. El tamaño de los municipios, por ejemplo, es algo que determina muchas veces su capacidad en el impulso de las políticas públicas en general y también de las políticas de igualdad en particular. Los municipios de menor tamaño, dadas sus características, pueden necesitar de un mayor apoyo para el desarrollo de proyectos que favorezcan la igualdad de mujeres y hombres. Es por ello que, históricamente, la Diputación Foral de Bizkaia ha aprobado decretos de subvenciones para llevar a cabo proyectos de igualdad de mujeres y hombres para municipios de menor tamaño, tamaño que en las últimas convocatorias se ha establecido en menores de 7.000 habitantes.

Por su parte, debido al mayor alcance y repercusión de las políticas públicas en su entorno, también es preciso el apoyo económico a las mancomunidades del Territorio Histórico de Bizkaia, para fomentar con mayor intensidad el desarrollo de políticas públicas dirigidas a la igualdad de mujeres y hombres, y favorecer un mayor equilibrio territorial.

Por otro lado, en virtud de lo establecido en el apartado h) del artículo 6 del texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo (en adelante, texto refundido de la Ley para la Igualdad) las administraciones forales deben establecer medidas de fomento a fin de dotar a los ayuntamientos y demás entidades locales de recursos materiales, económicos y personales para el desarrollo de programas y actividades dirigidas a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres.

La Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, recoge, en su artículo 3, que los principios generales que deben regir y orientar la actuación del Sector Público Foral del Territorio Histórico de Bizkaia son los recogidos en el artículo 3 del texto refundido de la Ley para la Igualdad.

Asimismo, la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, recoge entre las funciones del Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres la siguiente, en el artículo 8 j), el impulso,



Emakumeen eta gizonen berdintasunerako toki-politikak garatzeko sustapena egitea eta aholku zein laguntza ematea, udalerrri txikiei bereziki.

asesoramiento y apoyo para el desarrollo de las políticas locales para la igualdad de mujeres y hombres, especialmente a los pequeños municipios.

Horregatik guztiagatik, Bizkaiko Foru Aldundiak, bere eskumenak erabilita, dirulaguntzak emateko oinarriak eta deialdia arautzen ditu, publizitate-, lehia- eta objektibotasun-irizpideen pean.

Por todo ello, la Diputación Foral de Bizkaia, en ejercicio de sus funciones, procede a regular las bases y la convocatoria de subvenciones bajo los criterios de publicidad, concurrencia y objetividad.

Foru dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusten diren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen diren (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

El presente decreto foral responde a los principios de buena regulación previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y recogidos en el artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Oinarri eta deialdi hauek egiterakoan, kontuan hartu da zer xedatzen duen 2019ko maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuak, Bizkaiko Foru Aldundiaren jardura-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituenak.

En la elaboración de estas bases y convocatoria se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, que establece los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.

Gainera, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren 112/2024 Foru Dekretua, azaroaren 14koa, zeinaren bidez arautzen baita Bizkaiko Foru Aldundian generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa.

Se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 112/2024, de 14 de noviembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula la evaluación previa del impacto en función del género en la Diputación Foral de Bizkaia.

Ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 26.1 b) artikulua arabera, foru-dekretu hau salbuetsita dago aurretiko kontsulta publikoaren eta entzunaldi eta informazio publikoaren izapideak egitetik. Xedapen honen edukiak ez du funtsean aldatzen ordeztzen duen xede bera duen beste xedapen baten edukia. Zehazki, Bizkaiko Foru Aldundiaren 83/2024 Foru Dekretua, uztailaren 18koa, zeinaren bidez onartzen baitziren, 2024ko ekitaldiaren kontura, Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanletik beherako zuzenbidezko biztanleria duten udalerriei eta mankomunitateei dirulaguntzak emateko oinarriak eta deialdia, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko jardueretarako (2024ko uztailaren 23ko BAO, 142. zk.), proiektuaren aurrerapenaren aurretiazko kontsulta publikoaren izapidearen eta proiektuaren entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidearen mende jarri zen.

En virtud del artículo 26.1 b) del Decreto Foral 87/2021, de 15 de junio, este decreto foral está exento de realizar los trámites consulta pública previa y audiencia e información pública debido a que se trata de una disposición cuyo contenido no modifica substancialmente el contenido de otra con el mismo objeto a la que sustituye. Concretamente, el Decreto Foral 83/2024, de 18 de julio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueban las bases y convocatoria a municipios con población de derecho inferior a 7.000 habitantes y mancomunidades del Territorio Histórico de Bizkaia, para actuaciones de fomento de la igualdad de mujeres y hombres con cargo al ejercicio 2024 (BOB nº 142 de 23 de julio de 2024) fue sometido a trámite de consulta pública previa del avance del proyecto, así como a trámite de audiencia e información pública del proyecto.



Ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 16 eta 17 artikuluetan xedatutakoaren arabera, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren txosten juridikoa, kontrol ekonomikoko txostena eta legezketasun-txostena egin dira.

Se ha emitido informe jurídico del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, informe de control económico e informe de legalidad al amparo de lo dispuesto en los artículos 16 y 17 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio.

Xedapen hau onartzeko eskumenari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernuak da horretarako organo eskuduna, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.1.4 eta 17.2 artikuluen arabera.

En relación con la competencia del órgano para la aprobación de la disposición, a tenor de los artículos 17.1º. 4 y 17.2º de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia ésta corresponde al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia.

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak gaia aztertu eta onetsi ondoren, honako hau

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia.

XEDATZEN DUT

DISPONGO

Artikulu bakarra. *Dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea.*

Artículo Único. *Aprobación de las bases reguladoras y la convocatoria.*

Onesten dira 7.000 biztanle baino gutxiago duten Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriei eta mankomunitateei dirulaguntzak emateko oinarriak eta deialdia, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko jardueretarako, eta jarraian txertatzen da deialdi-oinarrion testua.

Se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de concesión de las subvenciones destinadas a a municipios con población de derecho inferior a 7.000 habitantes y mancomunidades del Territorio Histórico de Bizkaia, para actuaciones de fomento de la igualdad de mujeres y hombres, cuyo texto se inserta a continuación.

XEDAPEN GEHIGARRIA

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Xedapen Gehigarri Bakarra. *Aurrekontuko diru-izendapenak.*

Disposición Adicional Única. *Consignaciones presupuestarias.*

1. Foru dekretu honen arabera ematen daitezkeen dirulaguntzak -guztira 217.000 euro- aurrekontuko zuzkidura honen kontura izango dira: Programa: 232114; 0905 organikoan jasoa; ekonomikoa: 432.99; proiektua: 2007/0057; 2025eko ekitaldian, guztira, 237.000 €.

1. Las subvenciones que puedan otorgarse con arreglo al presente decreto foral se efectuarán con cargo a la dotación presupuestaria del Programa 232114, recogida en el orgánico 0905, económico 432.99, proyecto 2007/0057, por un total de 237.000 €, en el ejercicio 2025.

AZKEN XEDAPENAK

DISPOSICIONES FINALES

Lehena. *Arau bidez garatzeko gaikuntza.*

Primera. *Habilitación para el desarrollo normativo.*

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna

Se faculta a la diputada foral del Departamento de



Sustatzeko Saileko foru diputatuari ahalmena eman zaio dekretu hau osatzeko edo garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak emateko.

Empleo, Cohesión Social e Igualdad, a dictar cuantas disposiciones considere necesarias para complementar o desarrollar el presente decreto.

Bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Segunda. *Entrada en vigor.*

Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

El presente decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatua/ la diputada foral del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad. MARIA TERESA LAESPADA MARTINEZ

Ahaldun Nagusia/ Diputada General. ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA.





2025eko ekitaldiaren kontura 7.000 biztanletik beherako zuzenbidezko biztanleria duten Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriei eta mankomunitateei dirulaguntzak emateko oinarriak eta deialdia, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko jardueretarako.

Bases reguladoras y convocatoria de concesión de las subvenciones a municipios con población de derecho inferior a 7.000 habitantes y mancomunidades del Territorio Histórico de Bizkaia, para actuaciones de fomento de la igualdad de mujeres y hombres, con cargo al ejercicio 2025.

I.KAPITULUA

CAPÍTULO I

Xedapen orokorrak

Disposiciones generales

1. artikulua. *Xedea.*

Artículo 1. *Objeto.*

1. Foru dekretu honen bidez, erregulatu nahi dira 7.000 biztanletik beherako zuzenbidezko biztanleria duten Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriei eta mankomunitateei emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko jardueretarako emango zaizkien laguntzak.

1. El objeto del presente decreto foral es regular las ayudas a municipios con población de derecho inferior a 7.000 habitantes y mancomunidades del Territorio Histórico de Bizkaia, para actuaciones de fomento de la igualdad de mujeres y hombres.

2. artikulua. *Erakunde onuradunak.*

Artículo 2. *Entidades beneficiarias.*

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanletik beherako zuzenbidezko biztanleria duten udalerriak eta mankomunitateak eskuratu ahal izango dituzte dekretu honetan jasotako dirulaguntzak. Egiaztatu beharko dute 4.2 d) artikulua araberako diruz lagundutako proiektua edo jarduera gauzatuko duten pertsonak prestakuntza espezifiko eta/edo esperientzia dutela emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan.

1. Podrán acceder a las subvenciones contenidas en el presente Decreto los municipios con población de derecho inferior a 7.000 habitantes y las mancomunidades del Territorio Histórico de Bizkaia, siempre que acrediten que las personas que ejecutarán el proyecto o actividad subvencionada poseen formación específica y/o experiencia en materia de igualdad de mujeres y hombres en los términos del artículo 4.2 d).

2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan xedatutakoa aplikatuz, ezin izango dira dirulaguntza hauetara aurkeztu eta haien onuradun izan foru arau horretako 42. artikulua a), b) eta c) letretan adierazitako egoerarikoren batean dauden erakundeak.

2. En aplicación de lo dispuesto en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres, no podrán concurrir ni resultar beneficiarias de estas subvenciones aquellas entidades en quienes concurra cualquiera de las circunstancias señaladas en los apartados a), b) y c) del artículo 42 de la citada norma.

3. Era berean, ezingo dira erakunde onuradun izan izaera bereko dirulaguntzen edo laguntzen esparruan hasitako itzultze- edo zehapen-prozedura batean sartuta daudenak, ezta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluko edozein egoeran daudenak ere (aukera hau markatu egoitza elektronikoa).

3. Asimismo, no podrán obtener la condición de entidades beneficiarias aquellas que se hallen incursas en un procedimiento de reintegro o sancionador iniciado en el marco de subvenciones o ayudas de la misma naturaleza, así como en cualquier circunstancia que establece el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

4. Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan zerrendatutako betebeharrak bete behar dituzte (aukera hau markatu egoitza elektronikoa).

4. Deberán cumplir las obligaciones relacionadas en el artículo 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.





3. artikulua. *Eskabideak aurkeztea eta epeak.*

1. Dekretu honetan aurreikusitako dirulaguntzak jaso nahi dituzten erakundeek egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dute eskabidea, nahitaez, Administrazio Publikoen Administrazioa Prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikulua ezarritakoaren arabera.

- <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

2. Eskabideak aurkezteko epea 2025eko irailaren 1etik 2025eko irailaren 30era arte izango da (biak barne).

3. Eskatzaileek gehienez ere proiektu bat aurkeztu ahal izango dute.

Nolanahi ere, aurkeztutako lehen proiektua bakarrik baloratuko da.

Mankomunitate batek eskaera bat aurkezteak ez du eragotziko mankomunitateko kide den udalerrri batek eskaera bat aurkeztea.

4. Deialditik kanpo geratzen dira:

a) Beste edozein kontzeptutako inbertsiorako eskabideak edo irabazteko asmoa dutenak.

b) Beste erakunde eta/edo entitate batzuekin batera eta/edo Bizkaiko Foru Aldundiak berak finantzatutako proiektuak.

c) Aisialdi-jarduera hutsak diren proiektuak.

d) Jarduera asistentzial hutsei buruzko proiektuak.

e) Genero-ikuspegia jasotzen ez duten proiektuak.

f) Berdintasun Planak egiteko proiektuak.

g) Hizkuntza sexista darabilten proiektuak.

4. artikulua. *Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren*

Artículo 3. *Presentación de solicitudes y plazos.*

1. Las entidades que deseen acogerse a las subvenciones previstas en este decreto deberán presentar la correspondiente solicitud obligatoriamente por sede electrónica, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 14. 2.a. de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

- <https://www.ebizkaia.eus/es/inicio>

2. El plazo de presentación de las solicitudes será desde el 1 de septiembre de 2025 hasta el 30 de septiembre de 2025, ambos inclusive.

3. Las solicitantes podrán presentar un máximo de un proyecto.

En todo caso, solo se valorará el primer proyecto presentado.

La presentación de una solicitud por una mancomunidad no impedirá la presentación de una solicitud por un municipio que forme parte de aquella.

4. Quedan excluidas de la convocatoria:

a) Las solicitudes dirigidas a la inversión en cualquier concepto o aquellas que tengan ánimo de lucro.

b) Proyectos cofinanciados por otras Instituciones y/o Entidades y/o por la propia Diputación Foral de Bizkaia.

c) Proyectos que constituyan actividades de ocio exclusivamente.

d) Proyectos que constituyan actividades exclusivamente asistenciales.

e) Proyectos que no incorporen la perspectiva de género.

f) Proyectos para la elaboración de Planes de Igualdad.

g) Proyectos que utilicen un lenguaje sexista.

Artículo 4. *Documentación a presentar con la solicitud.*





agiriak.

1. Eskabideak aurkezteko, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan bete eta aurkezteko dauden eredu ofizialak erabili behar dira:

- <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

Eredu hori erabiltzen ez bada, interesdunari jakinaraziko zaio hamar eguneko epea duela akatsa zuzentzeko. Halaber, adieraziko zaio horrela egiten ez badu eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

2. Agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Proiektuaren memoria.

Dokumentu horrek ezin du 15.000 hitz baino gehiago izan.

Proiektuak hitz-kopuru hori gainditzen badu, 15.000 hitzetarainoko edukia bakarrik baloratuko da.

Beste alde batetik, ez da baloratuko dokumentu horretan garaturik ez dagoen ezein eduki, hala nola web-orrietarako nahiz euskarri-dokumentuetarako estekak.

b) Sarreraren eta gastuen aurrekontua. Egoitza elektronikoaren formularioaren bidez beteko da.

c) Indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal edo mankomunitate plana.

d) Berdintasunaren arloan laguntza tekniko eta/edo prestakuntza emateko pertsonak eta/edo entitateak kontratatuz gero, berdintasunaren arloko prestakuntza edo esperientzia izan beharko dute.

Hori hala dela egiaztatzeko, berdintasun arloan laguntza tekniko eta/edo berdintasun arloan prestakuntza emango duen pertsonari dagokionez, bide hauetakoren bat erabili beharko da:

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza-ikastaro bat, gutxienez 150 ordukoa, eginda dutela egiaztatzen duen agiri aurkeztu beharko dute, edo, bestela, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan gutxienez urtebeteko lan-

1. Las solicitudes deberán, de acuerdo con lo previsto en el artículo 66.6 de la Ley 39/2015, ajustarse a los modelos oficiales disponibles para su cumplimentación y presentación en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

- <https://www.ebizkaia.eus/es/inicio>

En caso de no utilización de dicho modelo, se requerirá a la parte interesada para que, en un plazo de diez días, subsane la falta con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición.

2. Deberá presentarse la siguiente documentación:

a) Memoria del proyecto.

La extensión máxima de este documento no podrá superar las 15.000 palabras.

En el caso en que el proyecto supere dicha extensión máxima, solamente se valorará el contenido hasta las 15.000 palabras.

Por otra parte, no se valorará ningún contenido que no se encuentre desarrollado en dicho documento, tales como enlaces a páginas web u otros documentos de soporte.

b) Presupuesto de ingresos y gastos. Se cumplimentará a través del formulario de la sede electrónica.

c) Plan municipal o mancomunado de igualdad de mujeres y hombres en vigor.

d) En el caso de que se contraten personas y/o entidades para asistencia técnica en materia de igualdad o para impartir formación en materia de igualdad, éstas deberán contar con formación y/o experiencia en materia de igualdad.

Dicha condición deberá acreditarse de la siguiente manera respecto de la persona que impartirá la formación en materia de igualdad y/o que llevará a cabo la asistencia técnica en materia de igualdad:

Deberán presentar acreditación de un curso de formación en materia de igualdad de mujeres y hombres de, al menos, 150 horas de duración, impartido por una Universidad o Administración Pública, o bien acreditación de experiencia





esperientzia dutela egiaztatzen duena (adierazi arlo honetan gaitasuna duela egiaztatzen dituzten lanak).

Eskaera egitean oraindik ez badago identifikatuta kontratatuko den enpresa edo profesionala, erakunde eskatzaileek konpromiso-dokumentu bat aurkeztuko dute, udaleko idazkariak sinatua, eta bertan konpromisoa hartuko dute egiaztasun horiek justifikazio-dokumentuekin batera aurkezteko. Justifikaziorako epea (2027ko urtarrilaren 31) igaro ondoren ez badira egiaztasunak aurkeztu, dirulaguntza osorik itzuli beharko da.

e) Hartzekodunaren bankuko fitxa, behar bezala beteta (soilik eskatzaileak uko egiten badiu Administrazio honek bankuko datu horiek bere kabuz egiaztatzeari).

3. Aipatutako dokumentazioaz gain, berdintasuneko teknikari espezializatuak dituzten udalerriek eta mankomunitateek honako egiaztasun horiek aurkeztu beharko dituzte:

a) Udaleko langileak izanez gero, hori formalki egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da (adibidez, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua), honako informazio hau jasotzen duena:

1.^aPlazek LPZn duten izena.

2.^aPlaza bakoitzaren berariazko betekizunak berdintasunari dagokionez.

3.^aLanpostuaren monografian esleitutako eginkizunak.

b) Kanpoan kontraturiko zerbitzu bat bada, kontratuaren kopia aurkeztu beharko da.

4. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoaren bitartez eta dagozkion elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez, aurkeztu diren eskabideen administrazio-izapideak egiteko eskatutako pertsona eta erakunde interesdunen datuak egiaztatu eta kontsultatuko ditu, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13., 28. eta 53. artikuluetan aitortutako eskubideak alde batera utzi gabe.

profesional de, al menos, un año en materia de igualdad de mujeres y hombres, especificando los trabajos que acreditan la competencia en la materia.

Si al realizar la solicitud no se tuviera identificada la empresa o profesional a contratar, las entidades solicitantes presentarán un documento de compromiso, firmado por la Secretaría del ayuntamiento, en el que se comprometen a presentar dicha acreditación junto con la documentación de la justificación. Si al término del plazo para presentar la justificación (31 de enero de 2027) esta acreditación no se hubiera aportado, dará lugar a la devolución íntegra de la subvención.

e) Ficha bancaria de parte acreedora debidamente cumplimentada (únicamente en caso de que la persona solicitante se oponga a que esta Administración compruebe dichos datos bancarios por sus propios medios).

3. Además de la documentación señalada, los municipios y mancomunidades que cuenten con personal técnico especializado en igualdad deberán aportar documentación acreditativa:

a) En el caso de personal propio, deberá aportarse documentación que lo acredite formalmente (por ejemplo, publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia), y donde conste la siguiente información:

1.^aDenominación de la plaza en la RPT.

2.^aRequisitos específicos de igualdad de dicha plaza.

3.^aFunciones asignadas en la monografía del puesto.

b) En el caso de que se trate de un servicio externo contratado, deberá aportarse copia del contrato.

4. La Dirección General de Igualdad, del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia, mediante el Nodo de Interoperabilidad de Bizkaia, y a través de los servicios de interoperabilidad correspondientes, realizará las comprobaciones y consultas pertinentes de los datos de las personas y entidades interesadas requeridos para la tramitación administrativa de las solicitudes presentadas, sin perjuicio de los derechos reconocidos en los artículos 13, 28 y 53 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre.





Arrazoi teknikoen ondorioz ezin bada lortu informazioa zuzenean beste administrazio batzuetatik, Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak izapideak egiteko behar diren datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

5. Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak nahi dituen agiri eta informazio osagarri guztiak eskatu ahalgo dizkie eskatzaileei, aurkeztu duten eskabidea ondo ebaluatu eta ebazteko.

5. artikulua. *Eskaera zuzentzea eta espedientearen artxibatzea.*

1. Dirulaguntzen eskabideek akatsen bat badute edo osatu gabe badaude, erakunde eskatzaileari hamar egun balioduneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko, nahitaez egoitza elektronikoaren bidez, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezik, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, horretarako berariazko ebazpena eman ondoren, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 eta 21.1 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Ezingo da zuzendu proiektuaren memoria.

2. Eskatzailetariko batek presentzialki aurkezten badu eskabidea, zuzendaritzak errekerimendua egingo dio, aurkezpen elektronikoaren bidez zuzen dezan. Ondorio horietarako, zuzenketa egin den eguna izango da eskabidearen aurkezpen-data.

6. artikulua. *Dirulaguntza jaso dezaketen proiektuak.*

1. Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko jarduerak egiteko proiektuak diruz lagunduko dira, hala nola:

a) Emakumeen ahalduzko pertsonal, kolektibo, sozial eta/edo politikorako proiektuak: partaidetza-prozesuak, emakumeen egiturak edo sareak sortzea edo indartzea, ikastaroak eta tailerrak, etab.

b) Berdintasun-politikak zeharkakotzeko proiektuak, bereziki, aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzen duten proiektuak.

Si por causas técnicas no fuese posible obtener la información directamente de otras administraciones públicas, la Dirección General de Igualdad podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación.

5. La Dirección General de Igualdad, del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia podrá requerir a las solicitantes cuanta documentación e información complementaria considere necesaria para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.

Artículo 5. *Subsanación de la solicitud y archivo del expediente.*

1. Si las solicitudes de subvención adolecieran algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante para que en el plazo de diez días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos obligatoriamente por sede electrónica, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, previa resolución expresa en tal sentido conforme disponen los artículos 68.1 y 21.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre.

No será subsanable la memoria del proyecto.

2. Si alguna de las solicitantes presenta la solicitud presencialmente, la Dirección le requerirá para que sea subsanada a través de su presentación electrónica. A estos efectos, se considerará como fecha de presentación de la solicitud aquella en la que haya sido realizada la subsanación.

Artículo 6. *Proyectos subvencionables.*

1. Los proyectos a subvencionar deberán estar dirigidos al fomento de la igualdad de mujeres y hombres, tales como:

a) Proyectos de empoderamiento personal, colectivo, social y/o político de las mujeres: procesos participativos, creación y/o refuerzo de estructuras o redes de mujeres, cursos y talleres, etc.

b) Proyectos para la transversalización de políticas de igualdad, en particular, proyectos que incorporen la perspectiva de género en los presupuestos.





- | | |
|---|--|
| c) Lan-proiektuak gizon eta mutil gazteekin. | c) Proyectos de trabajo con hombres y chicos jóvenes. |
| d) Aisialdi eta jai-guneetan genero-ikuspegia txertatzeko proiektuak. | d) Proyectos para la incorporación de la perspectiva de género en espacios de ocio y festivos. |
| e) Emakumeen aurkako indarkeria matxistarekin lotutako proiektuak. | e) Proyectos en relación con la violencia machista contra las mujeres. |
| f) Haurrekin egiten diren jardueretan genero-ikuspegia txertatzen duten proiektuak. | f) Proyectos que incorporen la perspectiva de género en actividades con niños y niñas. |
| g) Azterlanak edo diagnostikoak egitea udalerrian, desberdinkeria-egoeren gainean, batez ere, eremu sektorialetan (jaiak, kultura, kirolak, aisialdia...). | g) Elaboración de estudios o diagnósticos en el municipio sobre las situaciones de desigualdad, en particular, en ámbitos sectoriales (fiestas, cultura, deporte, ocio...). |
| h) Genero-ikuspegia dituzten proiektuak zainketen arloan. | h) Proyectos que incorporen la perspectiva de género en el ámbito de los cuidados. |
| i) Udalerrian berdintasun-sektore estrategikoetan prozesu eraldatzaileak sortzen dituzten proiektuak (zainketen banaketa, landa-eremua, adineko emakumeak eta bakardadea, zahartzea, hirigintza eta joan-etorriak...) | i) Proyectos que generen procesos transformadores en el municipio en sectores estratégicos de igualdad (reparto de los cuidados, ámbito rural, mujeres mayores y soledad, envejecimiento, urbanismo y desplazamientos...). |
2. Bereziki balioetsiko dira ikuspegi interseksionala integraturik duten proiektuak.
2. Se valorarán especialmente los proyectos que integren la perspectiva interseccional.
- Ikuspegi interseksionalak aukera ematen du, batetik, proiektuaren garapen globalean modu estrukturalan ikusarazteko eta txertatzeko generoaz harago ere emakumeen bizitzan eragiten duten identitate eta kategoriak (etnia, klasea, dibertsitate funtzionala, sexu-orientazioa, migratzaile/errefuxiatu izaera, adina, nazionalitatea, erlijioa, landa-jatorria, etab.), eta, bestetik, ulertzeko nola teilakatzen diren identitate-kategoriok sexuarekin eta sortzen dituzten diskriminazio eta zapalketa egoerak.
- La perspectiva interseccional permite visibilizar e incorporar de manera estructural en el desarrollo global del proyecto, las diferentes identidades y categorías que más allá del género inciden en la vida de las mujeres (etnia, clase, diversidad funcional, orientación sexual, condición migrante/refugiada, edad, nacionalidad, religión, procedencia rural, etc.) y comprender cómo estas se solapan con el sexo generando situaciones de discriminación y opresión.
- Kasu horretan, proiektua deskribatzen duten ataletan azaldu beharko da (justifikazioa, helburuak, jarduerak, etab.) nola txertatzen den, nola hartu den kontuan desberdintasuna eta diskriminazioa sortzen duten beste ardatz horiek emakumeengan duten eragina.
- En ese caso, deberá explicarse en los distintos apartados que describen el proyecto (justificación, objetivos, actividades, etc.) cómo se incorpora, cómo se ha tenido en cuenta el impacto de esos otros ejes generadores de desigualdad y discriminación en las mujeres.
3. Udalerrian edo mankomunitatean garatu behar dira oso-osoan proiektuak.
3. Los proyectos deben desarrollarse íntegramente en el municipio o mancomunidad.
4. Aurkeztutako proiektuek bat etorri behar dute Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planeko, Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru
4. Los proyectos deberán presentarse en consonancia con las estrategias del Plan para la igualdad de mujeres y hombres de la Comunidad Autónoma del País Vasco, del Plan Foral para la





Planeko eta indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal edo mankomunitate Planeko estrategiek.

7. artikulua. *Dirulaguntzak emateko prozedura: norgehiagoka.*

Dirulaguntzak Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez emango dira, norgehiagoka araubidearen eta dagozkion oinarrietan ezartzen diren irizpideen arabera puntuaziorik handiena lortzen dutenei emango zaie dirulaguntza, eta beti ere aurrekontu-sailean ezarritako zenbatekoa muga izanik.

Ondorioz, aurrekontu-partida horren mugak eragozten badu gutxieneko puntuazioa lortu duten eskabide guztiei foru dirulaguntzak esleitzea, puntuazio handiena dutenei esleitzea proposatuko da, eskabide bakoitzaren lehentasun-hurrenkerari jarraituz, dagozkion zenbatekoa agortu arte.

Era berean, zenbait eskabidek lehentasun-ordena bera badute puntuazio bera lortu dutelako, eta puntuazio handieneko eskabideei dagozkien dirulaguntzak esleitu ondoren, haietarako dagoen zenbatekoa ez bada iristen dagozkien dirulaguntzen guztizko zenbatekoari erantzuteko, hauei aplikatutako dirulaguntzaren ehunekoa murriztuko da, harik eta erabilgarri dagoen zenbatekoa agortu arte.

8. artikulua. *Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.*

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako proiektuaren izaerari zailtzarik gabe erantzuten diotenak, ezarritako epean egiten direnak, indarrean dagoen araudiaren arabera justifikatzen direnak eta justifikatzeko epea amaitu baino lehen ordaintzen direnak.

Batik bat, foru dekretu honen ondorioetarako, diruz lagundu ahal dira gastu hauek:

a) Jasandako BEZa, baldin eta erakunde onuradunak ezin badu BEZ hori bere aitorpenean konpentsatu edo berreskuratu.

igualdad de mujeres y hombres en Bizkaia y del Plan municipal o mancomunado de igualdad de mujeres y hombres en vigor.

Artículo 7. *Procedimiento de concesión: concurrencia competitiva.*

La concesión de las subvenciones de esta convocatoria se realizará mediante Orden Foral de la diputada foral del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad en régimen de concurrencia competitiva, otorgándose la subvención a aquellas solicitudes que hayan obtenido mayor valoración, según los criterios que se establecen en los artículos correspondientes, teniendo como límite la cuantía consignada en la correspondiente partida presupuestaria.

En consecuencia, cuando el límite de la citada partida presupuestaria impida proponer la adjudicación de las subvenciones forales a la totalidad de las solicitudes que hayan obtenido la puntuación mínima establecida según los criterios de valoración, se propondrá su adjudicación a las de mayor puntuación, siguiendo el riguroso orden de prelación de cada solicitud, hasta agotar la cuantía correspondiente.

Asimismo, cuando varias solicitudes tengan el mismo orden de prelación por haber obtenido la misma puntuación y, una vez adjudicadas las subvenciones correspondientes a las solicitudes de mayor puntuación resulte que la cuantía disponible para ellas no alcance para atender el importe total de las subvenciones que les corresponden, se procederá a reducir el porcentaje de subvención aplicado a las mismas, hasta agotar la cuantía disponible.

Artículo 8. *Gastos subvencionables.*

Se consideran gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza del proyecto subvencionado, se realicen en el plazo establecido, se justifiquen de conformidad con la normativa en vigor y sean efectivamente pagados con anterioridad a la finalización del período de justificación.

En especial, a efectos del presente decreto, tienen la consideración de gastos subvencionables los siguientes:

a) El IVA soportado, en la medida en que la entidad beneficiaria no lo pueda recuperar o compensar en su declaración.





b) Diruz lagundutako jarduera garatzeko behar-beharrezkoak diren jarduera-kostuak.

b) Los costes de actividad estrictamente necesarios para el desarrollo de la actividad subvencionada.

Kontzeptu honetan sartuko dira:

Quedarán incluidos en este concepto:

Eskatutako dirulaguntzaren xede den proiektua garatzeko arduraldi esklusiboa duten pertsonak edo erakundeak kontratatzeak, fakturan hala zehazten bada.

Los gastos de contratación de personas o entidades cuya dedicación sea exclusivamente para el desarrollo del proyecto para el que se solicita subvención y así se especifique en la factura.

Proposatutako proiektua zabaltzeko eta haren publizitatea egiteko tresnetara bideratutako gastuak.

Los gastos destinados a herramientas de difusión y publicidad del proyecto propuesto.

Zehaztu egin beharko da proiektua egiteko beharrezkoa den beste edozein gastu, aurrekontuan aurreikusia eta kategoria horietako bati ez dagokiona.

Cualquier otro gasto necesario para la realización del proyecto que esté previsto en el presupuesto y que no responda a una de estas categorías, deberá ser detallado.

Ez da diruz lagunduko ez inbertsio-gasturik, ez eta pertsonal-gasturik.

No serán subvencionables los gastos de inversión ni los gastos de personal.

9. artikulua. *Dirulaguntzaren zenbatekoa.*

Artículo 9. *Importe de la subvención.*

1. Kapitulu honetako dirulaguntzen zenbatekoa 1.200 euro izango da gutxienez eta 10.000 euro gehienez.

1. Las subvenciones de este capítulo tendrán un importe mínimo de 1.200 euros y máximo de 10.000 euros.

Esleitutako zenbatekoa kalkulatzeko, eskabidean aurkezturiko aurrekontua izango da abiapuntua, edo, bestela, onarturiko aurrekontua, behin diruz lagundu ezin diren gastuak eta soberakin ez-konputagarriak araztu ondoren.

El cálculo del importe asignado se realizará a partir del presupuesto solicitado o, en su caso, a partir del presupuesto admitido, una vez depurados los gastos no subvencionables y los excesos no computables.

2. Dirulaguntza gisa, onartutako aurrekontuaren % 100 jasoko dute proiektuek (baina 10.000 euro gehienez ere), eta, gutxienez, 50 puntu lortu beharko dituzte horretarako.

2. Los proyectos serán subvencionados con el 100% del importe del presupuesto admitido (con el límite, en todo caso, de 10.000 euros), debiendo obtener una puntuación mínima de 50 puntos.

3. Baldin eta ez badago aurrekontu-kreditu nahikorik diruz lagundu daitekeen azken proiekturako, diruz lagunduriko zenbatekoa txikiagoa izan ahalko da onartutako aurrekontua baino.

3. En el caso en que para el último proyecto subvencionable no hubiera crédito presupuestario suficiente, el importe subvencionado podrá ser inferior al presupuesto admitido.

10. artikulua. *Eskabideak aukeratu eta ebaluatzeko irizpideak.*

Artículo 10. *Criterios de selección y valoración.*

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak hautatuko ditu lagunduko diren proiektuak, irizpide hauek kontuan hartuta:

La Dirección General de Igualdad del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad seleccionará los proyectos que serán apoyados, teniendo en cuenta los siguientes criterios:

1.- Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde-Sarean parte hartzea (3 puntu, gehienez).

1.- Participación en la Red Territorial para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Bizkaia (hasta 3 puntos).





2.- Berdintasunerako egitura (puntu 1, gehienez): Balioetsiko da berariazko berdintasun-arlo bat izatea udalerrian edo mankomunitatean.	2.- Estructura de Igualdad (hasta 1 punto): Se valorará la existencia de un área de igualdad específica en el municipio o mancomunidad.
3.- Diruz lagun daitekeen proiektuari atxikitako berdintasun-teknikari espezializatuak (2 puntu, gehienez): Balioetsiko da berdintasun-teknikari espezializatuak izatea, erakundekoak bertakoak zein kontraturiko kanpo-zerbitzu batekoak.	3.- Personal técnico especializado de Igualdad adscrito al proyecto subvencionable (hasta 2 puntos): Se valorará la existencia de personal técnico específico de Igualdad, tanto propio como si se trata de un servicio externo contratado.
4.- Proiektua justifikatzea eta testuinguruan jartzea (12 puntu, gehienez).	4.- Justificación y contextualización del proyecto (hasta 12 puntos).
4.1 Aurretiaz aztertzea zer beharrian dagoen (10 puntu, gehienez): Udalerriko emakumeen eta gizonen egungo egoeraren azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa egin behar da, eta azaldu zer desberdinkeria diren proiektuaren egokitasuna justifikatzen dutenak.	4.1 Análisis previo de la necesidad existente (hasta 10 puntos): Se debe realizar un análisis cuantitativo y cualitativo de la situación de mujeres y hombres en el municipio en el momento actual, explicando las desigualdades que justifican la pertinencia del proyecto.
4.2 Udal edo mankomunitate Berdintasun Planaren eta proiektuaren arteko lotura (2 puntu, gehienez).	4.2 Relación del proyecto con el Plan de Igualdad municipal o mancomunado (hasta 2 puntos).
5.- Proiektuaren garapena (74 puntu, gehienez):	5.- Desarrollo del proyecto (hasta 74 puntos):
5.1 Proiektuaren helburuak (15 puntu, gehienez): Proiektuaren helburu orokor bat eta helburu espezifiko bat edo batzuk adierazi beharko dira.	5.1 Objetivos del proyecto (hasta 15 puntos): Se deberá indicar un objetivo general del proyecto y uno o varios objetivos específicos.
5.2 Jarduerak, lan-metodologia, lan-prozesua eta berrikuntzak (44 puntu, gehienez).	5.2 Actividades, metodología, proceso de trabajo y aspectos innovadores (hasta 44 puntos).
5.3 Proiektua xede duen publikoari egokitzea (10 puntu, gehienez).	5.3 Adecuación del proyecto al público al que se dirige (hasta 10 puntos).
5.4 Proiektua jarraitzeko eta ebaluatzeko sistema (5 puntu, gehienez).	5.4 Sistema de seguimiento y evaluación del proyecto (máximo 5 puntos).
6.- Proiektuari lotutako bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa erantzukidetasunez uztartzea errazteko neurriak (4 puntu, gehienez).	6.- Medidas asociadas al proyecto para facilitar la conciliación corresponsable de la vida personal, familiar y laboral (hasta 4 puntos).
7.- Irisgarritasun unibertsala bermatzeko neurriak (4 puntu, gehienez).	7.- Medidas para garantizar la accesibilidad universal (hasta 4 puntos).
11. artikulua. <i>Onuradunen betebeharrak.</i>	Artículo 11. <i>Obligaciones de las entidades beneficiarias.</i>
Onuradunek betebeharrak izango dituzte:	Las entidades beneficiarias vendrán obligadas a:
a) Helburua betetzea, proiektua gauzatzea eta dirulaguntzaren xedea den jarduera egitea.	a) Cumplir el objetivo, ejecutar y realizar el proyecto que fundamente la concesión de la subvención.
b) Dirulaguntza eman duen organoari betekizun eta baldintzak bete direla frogatzea, baita proiektua egin	b) Justificar ante el órgano concedente el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así





dela eta dirulaguntza emateko edo laguntzaz gozatu ahal izateko aintzat hartutako xedea bete dela ere. Horretarako, 17. artikuluan adierazitako frogagiriak bidali beharko dira Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusira.

c) Diruz lagundutako proiektuan egiten den edozein aldaketa jakinaraztea, bai eta egin beharreko jardueraren izaera edo helburua funtsean aldatzen duen edozein gertaera ere.

d) Foru dekretu honetan eta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan ezarritako betebeharrak betetzea, eta, bereziki, jasotako funtsen erabilera frogatzen duten agiriak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol ekintzetarako erabilgarriak izan daitezkeen neurrian.

e) Diruz lagundutako proiektuak zabaltzeko edozein bide erabilita egiten diren dokumentuak, informazio-euskarriak eta komunikazioak EAEko hizkuntza ofizial bietan egingo dira.

f) Diruz lagundutako proiektuen zabalkundea, hedapena edo argitalpena egiten bada, berariaz adieraztea Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatuak direla, Foru Aldundiaren logotipoa eta Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren logotipoa txertatuta. Zuzendaritza horren web-orrian deskarga daitezke logotipo horiek.

g) Erakunde onuradunek berdintasunerako Legearen testu bateginan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritako printzipio orokorrak bete beharko dituzte beren jardueretan.

h) Erakunde onuradunek hizkuntza eta irudi mota guztiak modu inklusiboan eta ez-sexistan erabili beharko dute eta genero-ikuspegia sartu beharko dute egiten diren azterlan eta estatistiketan.

i) Era berean, 5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikulua aplikatuz, erakunde onuradunak hiru hornitzaile desberdini eskatu beharko dizkio eskaintzak gutxienez, diruz lagun daitekeen gastua, obra gauzatzeagatik sortua, 40.000 eurotik gorakoa denean, edo 15.000 eurotik gorakoa denean, aholkularitzako edo laguntza teknikoko enpresek ekipamenduez hornitzeagatik edo zerbitzuak

como la realización del proyecto y el cumplimiento de la finalidad que determine la concesión o disfrute de la subvención mediante la remisión a la Dirección General de Igualdad de la documentación justificativa aprobada en los términos del artículo 17.

c) Comunicar cualquier modificación que se realice en el proyecto subvencionado, así como cualquier eventualidad que altere sustancialmente el objeto o naturaleza de las actividades a desarrollar.

d) Cumplir las obligaciones que se establecen en este decreto foral y en el artículo 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, y en particular, la de conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.

e) Todos los documentos, soportes informativos y comunicaciones que se realicen por cualquier medio para difundir los proyectos subvencionados deberán realizarse en ambas lenguas oficiales de la CAV.

f) En los proyectos subvencionados que sean objeto de divulgación, difusión o publicación, hacer constar expresamente la existencia de financiación por parte de la Diputación Foral de Bizkaia mediante la incorporación de su logotipo, así como del logotipo de la Dirección General de Igualdad. Dichos logotipos estarán disponibles para su descarga en la página web de la Dirección.

g) Las entidades beneficiarias deberán cumplir en sus actividades con los principios generales establecidos tanto en el texto refundido de la Ley para la Igualdad, como en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

h) Las entidades beneficiarias deberán hacer un uso inclusivo y no sexista de todo tipo de lenguaje e imágenes, e incluir la perspectiva de género en estudios y estadísticas que se lleven a cabo.

i) En aplicación del artículo 29.3 de la Norma Foral 5/2005, la entidad beneficiaria deberá, como mínimo, solicitar tres ofertas de diferentes proveedores cuando el gasto subvencionable supere la cuantía de 40.000 euros en el supuesto de coste por ejecución de obra, o 15.000 euros en el caso de suministro de bienes de equipo o prestación de servicios por empresas de consultoría o





emateagatik denean.

Justifikazioan agerrarazi behar da aurkezturiko eskaintzen artean aukeraturikoa; hartara, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak bete beharko dira. Aukeraketa beren beregi justifikatu behar da memorian, proposamen merkeena egin duena hautatu ezean.

12. artikulua. *Izapidetzea, ebazpena eta errekursoak.*

1. Deialdi honetan ez da behin-behineko ebazpen-proposamenik egingo, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 22.4 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

2. Batzorde Teknikoa eskaerak ebaluatzeaz arduratuko den kide anitzeko organoa izango da, eta egindako ebaluazioaren emaitza zehazten duen txostena egin beharko du.

Batzorde Teknikoa Berdintasuna Sustatzeko zuzendari nagusiak, Berdintasunerako eta Genero Politiketarako idazkari teknikoak eta zuzendaritzako pertsonal teknikoak osatuko dute.

3. Dirulaguntzak Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatuaren foru agindu baten bidez eman eta ukatuko dira, horrexetarako berariaz eratzen den Batzorde Teknikoak proposatutakoaren arabera.

Era berean, baldintza bereziak ezarri ahal izango dira kasu bakoitzerako, baldin eta, jardueren izaera bereziagatik edo beste inguruabar batzuegatik, komenigarritzat jotzen badira dirulaguntzen xedea eta helburuak betetzeko.

4. Eskaera ezetsi egingo da, baldin eta erakunde eskatzailea ez badago Bizkaiko Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketen egoera erregularrean.

Era berean, eskatutako dirulaguntza ezetsi egingo da, aurrekontu-esleipenean dagoen kreditua agortu delako eta eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu ez delako.

5. Eskabideak ebazteko eta jakinarazteko epea, gehienez ere, sei (6) hilabete izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen direnetik aurrera zenbatuta. Ordurako ez bada haien gaineko ebazpen espresurik, ukatutzat joko dira dirulaguntzen eskabideok, hargatik eragotzi gabe Administrazioak

asistencia técnica.

La elección entre las ofertas presentadas deberá aportarse en la justificación, y se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria de elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

Artículo 12. *Tramitación, resolución y recursos.*

1. No se prevé en esta convocatoria propuesta de resolución provisional, a efectos de lo dispuesto por el artículo 22.4 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

2. La Comisión Técnica será el órgano colegiado encargado de evaluar las solicitudes, y deberá emitir informe en el que se concrete el resultado de la evaluación efectuada.

La Comisión Técnica estará integrada por la persona titular de la Dirección General de Igualdad, la Secretaría Técnica de Políticas de Género y Diversidad y personal técnico de la misma.

3. La concesión y, en su caso, la denegación de las ayudas, será realizada mediante Orden Foral de la diputada foral del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, a propuesta de la Comisión Técnica que se crea a tal efecto.

Igualmente podrán establecerse condiciones particulares para cada caso cuando, por la naturaleza específica de las actividades u otras circunstancias concurrentes, se estimen convenientes para el cumplimiento de la finalidad y objetivos de las subvenciones.

4. Procederá la desestimación de la solicitud si la entidad solicitante no se encontrase en situación regular de pagos con la Hacienda Foral de Bizkaia y frente a la Seguridad Social.

Igualmente, procederá la desestimación de la subvención solicitada por haberse agotado el crédito existente en la consignación presupuestaria, así como no alcanzar la puntuación mínima exigida.

5. El plazo máximo para la resolución y notificación de las solicitudes será de seis (6) meses desde la finalización del plazo para presentar solicitudes, considerándose desestimadas las peticiones de subvención si no recayera resolución expresa a dicha fecha, sin perjuicio de la obligación de la





espresuki ebazteko duen eginbarra.

administración de resolver expresamente las mismas.

6. Deialdi hau ebazteko ematen den foru agindua deialdi publiko honetako interesdunei jakinaraziko zaie; horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Egoitzan agertzeko sistemaren bidez ere jakinaraziko da.

6. La orden foral por la que se resuelva la presente convocatoria será notificada a las interesadas a los efectos de esta convocatoria pública mediante publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia». También se comunicará mediante comparecencia en sede.

7. Organo eskudunak prozeduraren ebazpenaren foru agindua jakinarazi ondoren, erakunde onuradunak hamar (10) eguneko epea izango du ebazpena onartzeko, eta epe hori adierazpen espresurik egin gabe igarotzen bada, ebazpena isilbidez onartu dela ulertuko da.

7. Notificada la orden foral de resolución del procedimiento por el órgano competente, la entidad beneficiaria dispondrá de un plazo de diez (10) días para su aceptación, transcurrido el cual sin haberse producido manifestación expresa, se entenderá tácitamente aceptada.

8. Eskatutako dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpena administrazio-bidea agortuko du.

8. La resolución por la que se proceda a la concesión o denegación de la subvención solicitada agota la vía administrativa.

Prozeduraren ebazpenak amaitu egiten du administrazio-bidea, eta, haren aurka, interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegiaren aurrean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatutako bi hilabeteko epearen barruan, edo, nahi izanez gero, aipaturiko errekurtsioa baino lehenago, errekerimendu-idazkia egin ahal izango zaio Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun Saileko foru diputatuari, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta biharamunetik, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan zehazten denaren arabera.

Contra la resolución del procedimiento, que pone fin a la vía administrativa, la parte interesada podrá interponer recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación, ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo, o, potestativamente, y con carácter previo al recurso citado, se podrá interponer requerimiento previo ante la diputada foral del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente de la notificación, en los términos previstos en el artículo 44 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa.

13. artikulua. *Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna.*

Artículo 13. *Compatibilidad con otras subvenciones.*

Foru dekretu honetako dirulaguntzak bateraezinek izango dira beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekiko, estatuko nahiz Europar Batasuneko beste edozein administrazio edo entitate publiko zein pribatuk edota nazioarteko erakundeek helburu berarekin emandakoak badira.

Las subvenciones del presente decreto foral serán incompatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

Era berean, ez dira bateragarriak izango helburu bererako Bizkaiko Foru Aldundiak berak emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

Tampoco serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad concedidas por la propia Diputación Foral de Bizkaia.

14. artikulua. *Jarduerak azpikontratatzeara.*

Artículo 14. *Subcontratación de actividades.*

5/2005 Foru Arauaren 27. eta 29. artikuluekin bat, lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100

El porcentaje máximo de subcontratación admisible será del 100% del importe de la actividad





izango da gehienez ere onartuko den azpikontratazio-portzentajea.

15. artikulua. *Dirulaguntza ordaintzea.*

1. Behin dirulaguntzak prozedura ezarriaren arabera onartuz gero, eta prozeduraren ebazpena jakinarazi eta gutxienez hamar eguneko epea igarota, emandako dirulaguntzaren % 100 izapidetuko da.

2. Dirulaguntzak eman eta ordaindu ahal izateko, erakunde eskatzaileek nahitaez bete behar dituzte beren zerga-betebeharrak, Zuzenbide Publikoko gainerako betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Baldintza hori eskaera aurkeztzen denean bete behar dute, eta berdin jarraitu dirulaguntza ematen denean, betebeharra aitortzen denean eta ordainketa egiten denean ere. Hori guztia espedientean justifikatuko da, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan xedaturikoarekin bat.

3. Era berean, erakunde onuradunei dirulaguntza eman eta, hala behar denean, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea Bizkaiko Foru Aldundiak berdintasunaren arloan emandako dirulaguntzak direla-eta hasitako itzulketa-prozedura edo zehapen-prozedura guztiak.

16. artikulua. *Jarduerak egitea eta justifikatzea.*

1. Proiektuak 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra egin behar dira.

2. Proiektuak justifikatzeko epea 2027ko urtarrilaren 31n amaituko da.

17. artikulua. *Jardueren justifikazioa.*

1. Dirulaguntza justifikatzeko, artikulua honetan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez, egoitza horretan eskura dauden eredu ofizialak erabiliz.

Eredu hori erabiltzen ez bada, interesdunari jakinaraziko zaio hamar eguneko epea duela akatsa zuzentzeko. Halaber, adieraziko zaio horrela egiten ez badu eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

subvencionada, de conformidad con los artículos 27 y 29 de la Norma Foral 5/2005.

Artículo 15. *Pago de la subvención.*

1. Una vez aprobadas las subvenciones conforme al procedimiento establecido, y transcurrido el plazo mínimo de diez días a contar desde la notificación de la resolución del procedimiento, se procederá a tramitar el 100% del importe de la subvención concedida.

2. La concesión y el pago de las subvenciones quedan condicionados al cumplimiento por parte de las entidades de sus obligaciones tributarias y demás de Derecho Público y frente a la Seguridad Social, circunstancia ésta que deberá concurrir en el momento de la presentación de la solicitud y mantenerse en el momento de la concesión, en el reconocimiento de la obligación y en el pago, lo que se justificará en el expediente de conformidad con lo dispuesto en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

3. Asimismo, la concesión y, en su caso, el pago a las entidades beneficiarias de las subvenciones quedará condicionada a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de las subvenciones en materia de igualdad concedidas por la Diputación Foral de Bizkaia, se halle todavía en tramitación.

Artículo 16. *Ejecución de las acciones y justificación.*

1. Los proyectos deberán realizarse desde el 1 de enero de 2026 hasta el 31 de diciembre de 2026.

2. El plazo máximo para su justificación será el 31 de enero del 2027.

Artículo 17. *Justificación de las acciones.*

1. La subvención concedida se justificará mediante la presentación a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia de la documentación recogida en el presente artículo. Los modelos oficiales disponibles para su cumplimentación y presentación estarán disponibles en la sede electrónica.

En caso de no utilización de dichos modelos, se requerirá a la parte interesada para que, en un plazo de diez días, subsane la falta con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su





petición.

- <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

- <https://www.ebizkaia.eus/es/inicio>

2. Dirulaguntza jasotzen duten erakundeek proiektuaren zenbateko osoa justifikatu beharko diote Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiari.

2. Las entidades subvencionadas deberán justificar ante la Dirección General de Igualdad el importe total del proyecto.

3. Egindako proiektua justifikatzeko memoriak atal hauek izan behar ditu:

3. La memoria justificativa del proyecto realizado incluye los siguientes apartados:

a) Jarduera-memoria. Proiektuaren garapenari eta balorazioari buruzko datuak jasotzen ditu.

a) Memoria de actividad, que incluya datos sobre el desarrollo y valoración del proyecto.

Erakunde onuradunak sexuaren arabera banakatutako informazioa emango die proiektuaren azken onuradunei edo erabiltzaileei, bai eta erakundeko langileei eta, hala badagokio, diruz lagundutako proiektua edo jarduera gauzatzeko kontratatutako erakundearen langileei ere.

La entidad beneficiaria aportará información desglosada por sexo de las personas beneficiarias o usuarias finales del proyecto, y del personal propio de la entidad, así como de la plantilla adscrita a la ejecución del proyecto o actividad subvencionada de la entidad que se haya contratado, en su caso.

b) Garatutako jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa. Egoitza elektronikoaren formularioaren bitartez justifikatuko da.

b) Memoria económica justificativa del coste de las actividades desarrolladas, que se justificará a través del formulario de la sede electrónica.

Diruz lagundutako proiektua dela-eta egindako gastu guztiak zerrendatuko dira, honako datu hauekin: hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta ordainketa-data, eta dagokion jarduera edo jarduerak.

Incluirá una relación de todos los gastos realizados con ocasión del proyecto subvencionado, con identificación de la persona acreedora y del documento, su importe, fecha de emisión y fecha de pago y actividad o actividades a que corresponde.

Era berean, justifikatu beharko dira dirulaguntzaren xede diren jarduerak gauzatzeagatik erakunde onuradunak edo proiektua garatzeko kontratatutako pertsonak edo erakundeek zuzenean jasotako diru-kontraprestazioak.

Asimismo, deberán justificarse las contraprestaciones dinerarias recibidas, directamente por la entidad beneficiaria o por las personas o entidades contratadas para el desarrollo del proyecto, por la ejecución de las actividades objeto de subvención.

c) Egin diren gastu guztien fakturak, edo frogagiriaren kopia soilak, eskaneaturik, eta, ordainketen egiaztagiriak.

c) Las facturas, o copia simple de los justificantes, escaneadas de todos los gastos realizados, junto con la documentación acreditativa de los pagos.

Proiektua gauzatzen deneko 12 hilabeteetan zehar jaulkiak izan beharko dute fakturak, eta ekintzak justifikatzeko epea amaitu baino lehen ordaindu beharko dira.

Las facturas deberán estar emitidas durante los 12 meses de periodo de ejecución del proyecto, y deberán ser abonadas antes de la finalización del plazo para la justificación de las acciones.

d) Dekretu honen 11 h) artikulua kasuan, aurkeztutako eskaintzen artean hautatzea, efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera, eta berariaz justifikatu beharko da hautaketa-memoria batean, proposamen ekonomikoa onuragarriena ez denean.

d) En el supuesto del artículo 11 h), la elección entre las ofertas presentadas conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria de elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

4. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna

4. La Dirección General de Igualdad del





Sustatzeko Saileko Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak esku izango du erakunde eskatzaileei eskatzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri guztia.

18. artikulua. Ez-betetzeak eta itzulketak.

1. Dirulaguntza jasotzen duen erakunde batek dekretu honetan, emate ebazpenean edo gainerako arau aplikagarrietan ezarritako baldintzetako bat betetzen ez badu edo, halaber, baldin eta justifikazioa egiteko betebeharra osorik edo zati batean ez badu betetzen, dagokion itzulketa-prozedurari ekingo zaio eta erakunde onuradunek osorik edo zati batean itzuli beharko dituzte jasotako zenbatekoak eta baita dagozkien berandutze-interesak ere, bestelako egintza batzuk abiarazi badaitezke ere. Kopuru horiek sarrera publikotzat hartuko dira.

2. Hurrengo kasuetan, dirulaguntza gisa jasotako kopuruak eta 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan ezarritako berandutze-interesak (dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketaren justifikazioa onartzen den egunera arte) itzuli beharko dira, osorik edo zati bat, kasu hauetan:

a) Dirulaguntza lortzeko bete beharreko baldintzak faltsutu edo laguntza jasotzea galaraziko luketen datuak ezkututzen direnean.

b) Xedea, jarduera, proiektua edo dirulaguntza emateko funtsa den jokaera oso-osorik edo zati batean betetzen ez denean, edo epez kanpo betetzen denean.

Diruz lagundutako ekintzak egin direla frogatzeko ezarritako epeak igaro eta ez bada egiaztatu eta justifikatu ekintza guztiak aurrez ikusi bezala burutu direla, edo egin eta justifikatutako gastua dirulaguntza emateko foru aginduan jarduerarako onartutako kostua baino txikiagoa izan bada, ulertuko da baldintzak ez direla.

Hala ere, kasu bi horietan, dirulaguntzaren xedea eta helburua betetzat jotzen badira, dirulaguntzaren zenbatekoa birdoitu egingo da, benetan justifikatu edo burututako kostuen arabera. Horretarako, proportzionaltasun-irizpidea erabiliko da, dirulaguntza emateko ezarritako irizpide eta mugei dagokienez.

Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta documentación e información complementaria considere necesaria.

Artículo 18. Incumplimientos y reintegros.

1. En el supuesto de que las entidades beneficiarias de las subvenciones incumplieran cualquiera de las condiciones establecidas en el presente decreto o en la resolución de otorgamiento y demás normativa de aplicación, así como en el supuesto de que incumplieran total o parcialmente la obligación de justificación, se instruirá el correspondiente procedimiento de reintegro quedando las entidades beneficiarias obligadas a la devolución total o parcial de las cantidades percibidas con sus correspondientes intereses de demora, sin perjuicio de las demás acciones que procedan. Dichas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos.

2. Procederá el reintegro de las cantidades percibidas en concepto de subvención, con la exigencia de intereses de demora previstos en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se aprueba la procedencia del reintegro, parcial o total, en los siguientes casos:

a) Obtención de la subvención falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando aquéllas que lo hubieran impedido.

b) Incumplimiento total, parcial o extemporáneo del objetivo, de la actividad, del proyecto o la no adopción del comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.

Existirá incumplimiento si, transcurridos los plazos establecidos para la justificación de la realización de las acciones subvencionadas, no se hubiera acreditado y justificado en su totalidad su ejecución en la forma prevista o, en el supuesto de que el gasto realizado y justificado hubiera sido inferior al coste aprobado de la acción en la Orden Foral de concesión.

No obstante, si en estos supuestos se entienden cumplidas la finalidad y objeto de las ayudas, se procederá al reajuste de la cuantía de la subvención en función de los costes efectivamente justificados y/o ejecutados, aplicándose el criterio de proporcionalidad en relación con los criterios y límites establecidos para su otorgamiento.





Bestalde, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako dirulaguntzei buruzko foru arauaren Erregelamenduaren 71. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira, dirulaguntzaren onuradunak aurkeztutako justifikazioan adierazten badu dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzetan aldaketak egon direla, eta aldaketa horiek ebazpena aldatzea eragin ahal zutela eta aldaketak onartu aurreko baimen administratiboa eskuratzeko izapidea bete gabe egin direla, dirulaguntza eman duen organoak aurkeztutako justifikazioa onar dezake, betiere onartze horrek hirugarrenen eskubideei kalterik eragiten ez badie; hala ere, horrek ez du salbuetsiko onuraduna Dirulaguntzen Foru Arauaren arabera izan ditzakeen zehapenetatik.

c) Justifikazioaren betebeharra ez betetzea edo behar adinako justifikaziorik ez egitea.

d) Indarrean dagoen arautegian jasotako zabalkunde-neurriak hartzeko betebeharra betetzen ez denean.

e) Indarrean dagoen arautegian xedatutako egiaztapeneko eta finantza-kontrolako jardunak direla eta, aurre egin, aitzakiak jarri, eragozpenak ipini edo ezetza ematen denean, baita era kontabilitateko nahiz erregistroko betebeharrak edo agiriak gordetzekoak betetzen ez direnean, horrek guztiak ondoko hauek egiaztatze ezintasuna badakar: jasotako funtsen erabilera egokia ote den, helburua lortu ote den, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregularitasuna norainokoak diren, edota xede berbererako beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribaturen batek -estatukoa zein Europar Batasuneko edo nazioartekoa- emandako beste dirulaguntza, sarrera edo baliabiderik egon den.

f) Administrazioak erakunde laguntzaileei eta pertsona onuradunei ezarritako betebeharrak —onuradunok dirulaguntza ematen zaiela eta bereganatzen dituzten konpromisoak barne— betetzen ez direnean, baldin eta horrek helburuak lortzeko, jarduera egiteko, proiektua burutzeko edo dirulaguntza ematean aintzat hartu den jokabidea hartzeko erari eragin badio edo horrekin zerikusia badu.

g) Foru Administrazioak erakunde laguntzaileei eta erakunde onuradunei ezarritako betebeharrak nahiz onuradunok dirulaguntza jasotzeagatik bereganatzen dituzten konpromisoak —aurreko atalean aipatutakoez bestelakoak— ez betetzea, baldin eta

Así mismo, de conformidad con el artículo 71 del Reglamento de la Norma Foral de Subvenciones, aprobado por Decreto Foral 34/2010 de 23 de marzo, cuando la persona beneficiaria de la subvención ponga de manifiesto en la justificación que se han producido alteraciones de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la misma que hubieran podido dar lugar a la modificación de la resolución, habiéndose omitido el trámite de autorización administrativa previa para su aprobación, el órgano concedente de la subvención podrá aceptar la justificación presentada, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceros, y sin que ello exima a la persona beneficiaria de las sanciones que puedan corresponder con arreglo a la Norma Foral de Subvenciones.

c) Incumplimiento de la obligación de justificación o la justificación insuficiente.

d) Incumplimiento de la obligación de adoptar las medidas de difusión contenidas en la normativa vigente.

e) Resistencia, excusa, obstrucción o negativa a las actuaciones de comprobación y control financiero previstas en la normativa vigente, así como el incumplimiento de las obligaciones contables, registrales o de conservación de documentos cuando de ello se derive la imposibilidad de verificar el empleo dado a los fondos percibidos, el cumplimiento del objetivo, la realidad y regularidad de las actividades subvencionadas, o la concurrencia de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

f) Incumplimiento de las obligaciones impuestas por la Administración a las entidades colaboradoras y entidades beneficiarias, así como de los compromisos por éstas asumidos, con motivo de la concesión de la subvención, siempre que afecten o se refieran al modo en que se han de conseguir los objetivos, realizar la actividad, ejecutar el proyecto o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.

g) Incumplimiento de las obligaciones impuestas por la Administración a las entidades colaboradoras y entidades beneficiarias, así como de los compromisos por éstas asumidos, con motivo de la concesión de la subvención, distintos de los





horrek guztiak honako hauek egiaztatzeko ezintasuna badakar: jasotako funtsen erabilera egokia den, helburua lortu den, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregularitasuna norainokoak diren, edota xede berbererako beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribaturen batek (naziokoa zein Europar Batasuneko edo nazioartekoa) emandako beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabiderik egon den.

h) Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. artikulutik 109.era bitartean xedatutakoa dela bide, dirulaguntza itzuli beharra dakarren erabakia hartzea.

i) Foru dekretu honetan eta indarreko araudian aurrez ikusten diren gainerako kasuetan. Besteak beste, berdintasunaren arloan laguntza tekniko edo prestakuntza emateko kontratatutako pertsonak eta/edo enpresek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza edo esperientzia profesionala dutela egiaztatzeko betebeharra betetzen ez denean

3. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak hasi eta tramitatuko du itzultzeko prozedura, eta Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatuak ebatziko du, erakunde onuradunak esan beharrekoa entzun eta gero.

Aplikatu beharreko arauak ez betetzeagatik dirulaguntza itzultzeko prozedura abiarazten bada, 12 hilabete pasatu baino lehen ebatzi beharko da.

19. artikulua. *Dirulaguntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea.*

Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23koa 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan xedatutakoaren arabera, borondatezko itzulketa da onuradunak Administrazioaren inolako errekerimendurik gabe egiten duena.

Borondatezko itzulketa egin denean, Administrazioak dagozkion berandutze-interesak kalkulatu dituzte, Dirulaguntzen Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Erakunde onuradunak berak eskatuta foru dirulaguntza itzultzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren eredu ofizialaren arabera ordainketa-gutuna erabili beharko du. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta

anteriores, cuando de ello se derive la imposibilidad de verificar el empleo dado a los fondos percibidos, el cumplimiento del objetivo, la realidad y regularidad de las actividades subvencionadas, o la concurrencia de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

h) La adopción, en virtud de lo establecido en los artículos 107 a 109 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, de una decisión de la cual se derive una necesidad de reintegro.

i) En los demás supuestos previstos en el presente decreto y normativa vigente; entre otros, el Incumplimiento de la obligación de acreditación de la formación o experiencia profesional en materia de igualdad de mujeres y hombres de las personas o empresas contratadas para la para asistencia técnica en materia de igualdad o para impartir formación.

3. El procedimiento de reintegro se iniciará y tramitará por la Dirección General de Igualdad del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad y será resuelto por la diputada foral del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, previa audiencia a la entidad beneficiaria.

El plazo máximo para resolver el procedimiento para la devolución de las subvenciones concedidas por incumplimiento de las normas aplicables será de 12 meses a partir de la fecha de su iniciación.

Artículo 19. *Devolución de la subvención a iniciativa de la entidad beneficiaria.*

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 76 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, se entiende por devolución voluntaria aquella que es realizada por la entidad beneficiaria sin el previo requerimiento de la Administración.

Cuando se produzca la devolución voluntaria, la Administración calculará los intereses de demora de acuerdo con lo previsto en el artículo 34 de la Norma Foral de Subvenciones.

La devolución de la subvención foral a instancia de la propia entidad beneficiaria se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago, según modelo oficial de la Diputación Foral de Bizkaia, que





Berdintasuna Sustatzeko Sailak emango du gutun hori.

20. artikulua. *Ebazpena aldatzea.*

1. Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren inguruabarretako bat aldatzen bada, haren xedea betetzat ematen dela, dirulaguntza eman duen ebazpena aldatu ahal izango da, dekretu honetan ezarritako irizpideak eta mugak aplikatuta.

2. Dirulaguntza emateko ebazpena eman ondoren, eta aldaketaren bat gertatzen bada dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan diruz lagundutako jarduerak egiteko ezintasun teknikoa dela medio, erakunde onuradunak ebazpena aldatzeko eskuta beharko du, hasieran aurkeztutako aurrekontuan edo proiektuan aldaketak egin direlako; aukera izango da luzapena baimentzeko, ez bazaie kalterik egiten hirugarrenen eskubideei.

Dirulaguntza aldatzeko eskaera aurkezteko, nahitaez erabili behar da egoitza elektronikoa.

Hiru hilabeteko epea izango da gehienez ere aldaketa-eskaerak aurkezteko, dirulaguntzak emateko foru agindua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

21. artikulua. *Zehapen-araubidea.*

Erakunde onuradunak indarreko araudian aurreikusitako arau-hausteren bat egiten badu, zehapena ezarriko zaio, zehapen-espeditentea ireki ondoren, urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera, Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legean eta 5/2005 Foru Arauan ezarritakoaren arabera..

22. artikulua. *Datu pertsonalen babesa.*

Datu pertsonalak eskuratzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen) eta hura garatzeko araudian ezarritakoari jarraituko zaio, bai eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari ere.

se expedirá en el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad.

Artículo 20. *Modificación de la resolución.*

1. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión, aplicándose los criterios y límites establecidos en este Decreto.

2. Una vez recaída resolución de concesión, y en el supuesto de que se produzca una alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención por imposibilidad técnica para realizar las actividades subvencionadas, la entidad beneficiaria deberá solicitar la modificación de la resolución, motivada por cambios en el presupuesto o proyecto presentado inicialmente, que podrá ser autorizada siempre que no dañe derechos de terceras personas.

La solicitud de modificación de la subvención deberá presentarse obligatoriamente a través de la sede electrónica.

Se podrá presentar solicitud de modificación de la resolución en el plazo máximo de tres meses a contar desde el día siguiente a la publicación de la orden foral de concesión de las subvenciones en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Artículo 21. *Régimen sancionador.*

La comisión por parte de la entidad beneficiaria de alguna de las infracciones previstas en la normativa vigente será sancionada, previa incoación de expediente sancionador, conforme a lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, según lo establecido en la Ley 1/2023, de 16 de marzo, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas Vascas y en la Norma Foral 5/2005.

Artículo 22. *Protección de datos de carácter personal.*

Cualquier acceso a los datos personales se realizará de conformidad con lo previsto al respecto en el Reglamento (UE) número 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y su normativa de desarrollo, así como en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales,





y Garantía de Derechos Digitales.

23. artikulua. *Arautegi orokorra.*

Dekretu honetan ezarritako dirulaguntzek dekretuan bertan eta dirulaguntza emateko aginduetan xedatutakoa beteko dute.

Eta, dekretuan aurrez ikusten ez denerako, arau hauek aplikatuko dira: maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, Dirulaguntzei buruzko Erregelamendua onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua eta, modu osagarrian, urriaren 1eko 39/2015 Legea eta aplikatzekoak diren zuzenbide administratiboko eta zuzenbide pribatuko gainerako arauak.

Artículo 23. *Normativa general.*

Las subvenciones establecidas en el presente decreto se regirán por lo dispuesto en el mismo y en las órdenes forales de otorgamiento.

En lo no previsto en el presente decreto, será de aplicación, la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, y el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, y subsidiariamente la Ley 39/2015, de 1 de octubre, y demás normas de derecho administrativo y derecho privado.

